



“YACULLAY: eskubideen H₂O egarri” NARRAZIO LABURREN LEHIAKETA - OINARRIAK

GAIA:

Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubidea.

ANTOLATZAILEAK:

medicusmundi Arabak eta Asociacion Servicios Educativos Rurales (SER) elkarteak antolatuta eta Gasteizko Udalaren laguntzarekin, “Yacullay: Eskubide Egarrria (2.edizioa)” narrazio laburren lehiaketarako deialdia egiten da.

OINARRIAK INTERPRETATZEA:

“Yacullay: Eskubide Egarrria” narrazio laburren lehiaketan parte hartzea erabaki, eta izena ematen dutenek oinarri hauek onartzen dituzte, bai eta antolatzaileek oinarrioren gainean egiten duten interpretazioa ere.

OINARRIAK:

1. Lehiaketa honetan 18 urtetik gorako pertsona guztiek parte har dezakete, haien herritartasuna eta bizitzaren lekua edozein izanik ere.

2. Aurkezturiko narrazio laburren gaiak lotura izan beharko du ura eta saneamendua izateko giza eskubidearekin.

3. Lanek aurretik saririk jaso gabekoak izan beharko dute, gaztelaniz eta/edo euskaraz aurkeztuko dira, eta originalak eta argitaragabeak izan beharko dute.

4. Formatua librekoa izango da. Aurkezten diren narrazioak ezingo dira egon beste lehiaketa batzuetan lehiatzen. Jatorrizkoen luzera 2 orri izango da gehienez, orrialde batetik eta DIN A-4 tamainan; orrialde bakoitzak 25-30 lerro izango ditu, Arial letra-tipoan, 12 tamainan eta 1,5 lineako lerroartearekin. Orrialde guztiak egongo dira zenbakituta, azala izan ezik. Lanen biala aurkeztuko dira, azalarekin eta goiko izkinan gratatuta. Egile bakoitzak lan bakarra aurkez dezake.

5. Posta arruntez aurkezten diren lanak gutun-azal itxi batean bidaliko dira, sinadurarik eta egilearen izenik gabe; izenburua eta ezizen bat baino ez dute izango, egilearen nortasuna ezkutatuzeko. Gutun-azal horren barruan ezizena eta lanaren izenburua da-raman beste gutun-azal bat egongo da, eta haren barruan emango dira, argi idatzita, egilearen izen-deiturak, helbide osoa, eta telefono-zenbakia, nortasun-agiriaren edo pasaportearen fotokopiarekin batera.

6. Lanak posta elektronikoz bidaltzen direnean, Marian Uriarteri helaraziko zaizkio, helbide honetara: **yacullay@gmail.com**.

7. Bai lanen azalean, bai gutun-azalen kanpoaldean eta bidaltzen den mezu elektronikoaren **“Gaiari” era nabarmenean agertuko da “Yacullay: Eskubide Egarrria (2. Edizioa)” narrazio laburren lehiaketa. medicusmundi** Araba.

8. Lanak, arestian ezarritako baldintzetan, posta arruntez helbide honetara bidali ahalko dira (bidaltzailea adierazi gabe): **medicusmundi** Araba, Isuntzarren kalea 9, 1. Esk., 01002 Vitoria-Gasteiz. Bestela, zuzenean ere eraman ahalko da helbide horretara (astelehene-tik ostiralera, 9:00-14:00).

9. Jatorrizko lanak jasotzeko MUGA-EGUNA **2018ko martxoaren 5a** izango da. Geroago iristen direnak (posta arruntez, alegia) onartu egingo dira, baldin eta zigilu-markan edo ziurtapen-zigiluan egun hori edo aurreko beste bat ageri bada.

10. Epaimahaiaren osatura erabakia ematen denean jakinaraziko da, eta saria emateko edo eman gabe uzteko erabakitzeo ohiko ahalmenez gain, eta erabakia emateko ahalmenez gain, oinarri hauek interpretatzeko ahalmena ere izango du. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

11. Prozedura ebazteko gehieneko epea 2018ko martxoaren 20a izango da. Erabakia komunikabideen bitartez eta www.yacullay.com web-orriaren bidez jakinaraziko da.

12. **medicusmundi** Arabak egoki irazitako neurriak hartu ahal izango ditu aurkezturiko lanen benetakotasuna bermatzeko.

13. Sarien zenbatekoak hauek izango dira:
1º Saria: 400 €
2º Saria: 250 €
3º Saria: 150 €

14. Oinarri hauekin bat ez datozen lanak gordailututa geratuko dira, eta ez dute deialdian parte hartuko.

15. **medicusmundi** Arabak saritutako lanak egoki irazitako eran argitaratu ahalko ditu, herritarrak Ura eta Saneamendua izateko Giza Eskubideaz sentsibilizatzeko xedez.

